

2025/26 GABONETAKO BALKOI, LEIHO ETA FATXADEN III. LEHIAKETA

LEHIAKETAREN OINARRIAK:

LEHENENGOA.

Debako herritar guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

Bizilekua herrian duten pertsonak. Parte-hartzaileek askatasun osoa izango dute balkoiak, leihoak eta fatxadak apaintzeko teknika eta estiloari dagokienez, betiere dekorazioak oinezkoentzat inolako arriskurik ez badakar.

BIGARRENA.

Izen-ematea doakoa da eta 2025eko abenduaren 1etik 23ra izango da. Eskabideak bi bidetatik onartuko dira:

1. Online, inprimaki hau betez: <https://labur.eus/balkoilehiaketa3>
2. Turismo Bulegora joanez (10:00etatik 14:00etara) edo 943192452 telefonora deituz.

Turismo bulegoan izena ematen baduzu, honako hau adierazi beharko duzu:

1. Izen-abizenak.
2. Inskribatu nahi duzun etxearen helbidea.
3. Harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa.
4. turismoa@deba.eus helbidera bidali beharko dituzu egindako dekorazioaren argazki bat edo batzuk.

HIRUGARRENA.

Balkoien, fatxaden eta leihoen dekorazioak lotura zuzena izan behar du Gabonetako motiboekin. Apainduta eta ikusgai egon beharko dute, gehienez, 2026ko urtarrilaren 6ra arte.

LAUGARRENA.

Erakusketa-aldian dekorazioa eta/edo argiztapena osatzen duten materialek akatsen bat izanez gero, ordeztu edo kendu egin beharko dira, eta dekorazioa jarri duen partikularraren erantzukizuna izango da.

BOSGARRENA.

2025/2026 GABONETAKO BALKOI, LEIHO ETA FATXADEN III. LEHIAKETA honetako saridunak hautatzeko epaimahaiak honako puntu hauek baloratuko ditu funtsean:

- Diseinua eta originaltasuna.
- Birziklatutako elementuak erabiltzea.
- Herri-tradizioa.

Epaimahaiak 2026ko urtarrilaren 2an bilduko da udaletxean, parte hartze aldian zehar fatxadak, balkoiak eta leihoak bisitatu ondoren eta jasotako argazkiak uneoro gogoan izan ondoren. Une horretan erabakiko dira irabazleak, eta 2026ko urtarrilaren 3an emango da erabakiaren berri.

SEIGARRENA.

Sariak:

- Lehen saria: gau bat hotelean + spa + gosari buffet-a bi pertsonentzat (250€).
- Bigarren saria: 150 euroko bazkaria kalbeton jatetxean.
- Hirugarren saria: spa + brunch hotelean 2 pertsonentzat (100€)

Lehiaketa egin ahal izateko, gutxienez 5 balkoi, fatxada edo leihok parte hartu beharko dute.

ZAZPIGARRENA.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta tokiko komunikabideetan argitaratuko da. Gainera, irabazleei telefonoz jakinaraziko zaie.

Sariak emateko ekitaldia 2026ko urtarrilaren 3an egingo da, Urte berriko feriako sari banaketan, 13:30etik aurrera.

ZORTZIGARRENA.

Izena emate hutsak esan nahi du parte-hartzaileek 2025/26 GABONETAKO BALKOI, LEIHO ETA FATXADEN III. LEHIAKETAKO oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzen dituztela.

BEDERATZIGARRENA.

Lehenengo urteko irabazleak parte hartzeko aukera izango du, betiere aurreko urteko berdina aurkezten ez badu.